



*Parque Botánico de  
Txatxarramendiko  
Parke Botaniko*

# Sarrera - Introducción



**Testuak / Textos:**  
© Xarles Cepeda

**Argazkiak / Fotografías:**  
© Jon Maguregi

**Argitalpena eta edizioa: / Publicación y edición:**  
© Sukarrietako udala 2006

**Dirulaguntza / Subvención:**  
EUSKO JAURLARITZA. Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila  
Urdaibai Biosfera Erreserbaren Patronatua %70

**Bateratzea eta prestatze lanak / coordinación y realización:**  
AIXERREKU Natura eta ingurugiroa S.L.

**Lege Gordailua / Deposito legal:**  
BI-0000-06

**Disenua, maketazioa eta inprimatzea / Diseño, maquetación e impresión:**  
Graficas Amorebieta

Txatxarramendiko Parke Botanikoa Urdaibaiko Biosfera Erreserbako artadi kantauriarrek duten aberastasun botanikoaren adibide ezin hobea da. Sukarrieta udalerrian dago, izen bereko uhartean. Uharteak daukan balio botanikoaz gain, ingurune paisajistiko eta kultural zoragarrian dago, Gernika-Mundakako itsasadarraren ahoan bertan, eta talaia itzela da Urdaibaiko Biosfera Erreserbako estuarioaren paisaiaz gozatzeko.

Txatxarramendiko Parke Botanikoa Urdaibaiko Biosfera Erreserbako artadi kantauriarrek duten aberastasun botanikoaren adibide ezin hobea da. Sukarrieta udalerrian dago, izen bereko uhartean. Uharteak daukan balio botanikoaz gain, ingurune paisajistiko eta kultural zoragarrian dago, Gernika-Mundakako itsasadarraren ahoan bertan, eta talaia itzela da Urdaibaiko Biosfera Erreserbako estuarioaren paisaiaz gozatzeko.

# Deskribapen orokorra - Descripción general

## Txatxarramendi uharteko ingurune paisajistikoa

### *Entorno paisajístico de la Isla de Txatxarramendi*

Txatxarramendi uhartea Urdabaiako Itsasadarraren ahoan dago. Kareaizko multzo txiki hori, San Dindere Izeneko uhartearen batera, Urdabaiako Itsasadarraren dauden uhartetxo bakarrak ditu. Biuhartetxo horiek Sukarrieta Udalerraren barruan daude. Txatxarramendi uharteak paisaje ederrak ditu bere inguruau: Iparraldean Mundaka udalerriarekin eta Laidako hordartzera eta dunekin egiten du topo, ekialdean Urdabaiko itsasadarrarekin eta Atxerreko Artadi kantauriarrekin. Mendebaldean Sukarrieta hirigunearekin eta Katilotxu mendiarekin eta Hegoaldean Urdaibaiko padurekin. Euskal Herriko kostaldeko hezegunerik garraitu itsuenarekin.

La isla de Txatxarramendi se encuentra situada en plena desembocadura de la ría de Urdabai. Este rincón privilegiado constituye punto avanzado de San Dindere, los dos únicos islotes en el interior de la Ría de Urdabai. Ambas islas pertenecen al municipio de Sukarrieta. La isla de Txatxarramendi se encuentra rodeada de un entorno paisajístico y ecológico singular, al noroeste con la Playa de dunas de Laido del municipio de Mundaka, al este Playa de la Corte de Maldanay y los entornos rurales de San Pedro de Atxerri. Al oeste en el bosco urbano de Sukarrieta y al norte Katilotxu y el sol con las marismas de Urdabai. La zona es una de las más importantes de Euskal Herria.





Txatxarramendi uhartea inguru etnografiko privilegiatuan dago. Badia hori kabotaje portu gisa erabili zuten erronatarrek k.o. II. mendean. Orain dela gutxi arte "Txatxarramendi Hotel" famatua zegoen bertan (1896-1947), eskualdeko turismoaren aitzindaria eta trena iristearen errudun nagusia. "Paco Hostala" eraiki zen eta hura izan da eskualdeko turismoaren ikurra orain dela gutxi arte (1919-1968). Itsaski-haztegia edo zetareoa zituen eta orain gutxi berreskuratu zituen URDAIBAIKO GALTZAGORRIAK boluntario elkartea. Kanala auzotik zetozentzera eta karearentzako kargaleku ere izan zen. Orain dela gutxi, berriz, Urdaibaiko Artadi kantauriarreko parke botanikoa eta AZTIren, (Arrantza eta Elikagaiak ikertzeko Institutuaren) egoitza jarri zituzten han.

*La Isla de Txatxarramendi se encuentra en un entorno etnográfico privilegiado. La ensenada en la que se sitúa fue utilizada por los romanos como pequeño puerto de cabotaje en el siglo II d.C. en la zona Sur de Portuondo. En épocas más actuales la Isla acogió al Hotel Txatxarramendi (1896-1947), pionero del turismo en la comarca y principal responsable de que el tren llegase hasta el municipio. Frente a la isla se construyó el Hostal Paco, auténtico referente del turismo en la comarca hasta épocas recientes(1919-1968) y su vivero de marisco o cetáreo (1930), recientemente recuperado por la Federación voluntarios/as de Urdaibai URDAIBAIKO GALTZAGORRIAK. También dispuso de un cargadero de arena y cal que venía desde Kanala, y un importante calero, hasta que en épocas recientes acogió al Instituto Pesquero alimentario AZTI y el Parque botánico de los encinares cantábricos de Urdaibai.*



## TXATXARRAMENDIKO ZETAREOAREN BERRESKURAPENA RECUPERACION DEL CETÁREO DE TXATXARRAMENDI



**Txatxarramendiko inguruaren errekreazioa 30. hamarkadan  
Recreación del entorno de Txatxarramendi hacia los años 30.**



**Antolatzalea / Organización**

**Kolaboratzalea / Colaboración**



ITSASKI-HAZTEGIA haiz 1930an eragi zan, "arrantza hizketa garbileko leku" berriko izozteko, aldean, arrantza hizketa gunea. Ez dagoen arrondegia, itsaskak (muskulak, tortilla, ...) berriko eskitan zituzten, baina, Etxeko hauz 2001 urtean hondorriko zera, GALTZAGORRIAK trenetako bolundrean zilakatuak zituzten.

VIVERO construido en 1930 como "establecimiento depósito de pescado vivo". Instalaciones para la pesca y la elaboración de marisco en espera de llegar a las cocinas y mesas del Hostal Paco. Reconstruido en el año 2001 por la Plataforma de Voluntarios GALTZAGORRIAK.

GALTZAGORRIAK  
Euskal Herriko herrikoak. Tokiak, arrabes, intrakus otxak edo pista gorriko gizonezkoak dira. Alegría sotoloko pertsonaiak dira.

PANO OSTATUAREN HAZTEGIA, 1930an eragi, Construido en 1935.  
MATxitxam LUMPUTURA, 2 CABO MATxitxam,  
OGONO LUMPUTURA, 3 CABO OGONO,  
FRANTSISSOTAREN IZANDO KOHENTUA, 4 MONASTERIO FRANCISCANO DE IZARDO (1.422-1.719).

TXATXARRAMENDI HOTELAK, KANBIA ETA HAZTEGIA,

TXATXARRAMENDI HOTEL, 5 HOTEL TXATXARRAMENDI (1896-1947),

GENKA SUKARREA BURDINBIDEA (1906), 6 FERROCARRIL GERNIKO PREDORIALES (1906)

PACO OSTATUA, 7 HOSTAL PACO (1919-1968),

BAR PALACE (Herritarrenaz, "Pal") Logola,

ITXASGEN GARABDOTTIGIA, 8 BAR PALAS (de Palacio) Habascones,

TORBA, 9 AMENERO,

HARSA ETA KARSA KANALAKI, 10 TRANSPORTE DE ARENA Y CAL DEL CALERO DE KANALA,

UGATA, 11 COMPUERTA,

URA BARNIZTATEKO, 12 CANALES DE RENOVACIÓN DE AGUA,

SARRUKO PIZZINA, 13 PISCINA INTERIOR,

Egilea / Realización


Este cineasta ha sido recuperado en Azkena por miembros de la Plataforma de Voluntarios de Urdaibai, URDAIBAIKO GALTZAGORRIAK, dedicando su tiempo y trabajo de forma desinteresada. A todos ellos enhorabuena.



**GALTZAGORRIAK**  
Urdabaiaren aldeko Bolondresak

## Artadi kantauriarrak Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren eremuan

*Los encinares cantábricos en el ámbito de la Reserva de la Biosfera de Urdaibai*




Urdaibaiko Biosfera Erreserbak artadi kantauriarrako 1.350 ha. hartzen du bere gain, Urdaibaiko baso naturalik handiena differentzia handiz. Bere garrantzi ekologikoa kontuan izanik, Urdaibai Biosfera Erreserbako Babes eta Antolamendurako 5/1989 Legeak babesten du. Orain dela gutxi onartu da Urdaibaiko artadi kantauriarreko Iurrealde ekintzarako egitamua. Plangintza berezi horrekin baso horiek araudi-garapen zehatzatza izango dute eta, era berean, hainbat ekimen jarri dira abian hura kontserbatzeko eta berreskuratzeko.


*La Reserva de la Biosfera de Urdaibai acoge 1.350 ha. de encinares cantábricos, lo que constituye, con diferencia, el bosque natural más extenso de Urdaibai. Dada su importancia ecológica se encuentra protegido por la Ley 5/1989 de Ordenación y Protección de la Reserva de la Biosfera de Urdaibai. Recientemente ha sido aprobado el "Plan de Acción territorial de encinares cantábricos de Urdaibai" lo que supone de hecho un desarrollo normativo específico de estas masas forestales, así como diferentes iniciativas para su conservación y regeneración.*

Baso mota hori Urdaibaiko 5 eremu ezberdinetan dago, Itsasadarren bi aldeetan: Atxerrea, Erenozarre, Muruetako Atxa, Ogoño eta Atxapunta. Baso handi horietaz gain, basotxo txiki batzuk aurki daitezke sakabanaturik lurraldean, kostaldean batez ere eta 600 metrotik beherako barnealdeko harrizko hegaletan.

*Este tipo de bosque se extiende en Urdaibai en 5 conjuntos a ambas márgenes del estuario de la ría de Gernika-Mundaka: Atxerrea, Ereñozarre, Muruetako Atxa, Ogoño y Atxapunte. Además de estas extensas masas forestales aparecen pequeñas manchas de encinar dispersas en el territorio, especialmente en el litoral costero y en crestones y laderas rocosas del interior de la comarca que no superen los 600 mts. de altitud.*



## Txatxarramendiko artadia - *El encinar de Txatxarramendi*



Txatxarramendi uharteko artadia Urdaibaiko alde multzorik zaharrenetarikoa da. Txatxarramendi hotela egon zenean ondo zaindu baitzuten eta geroztik gaur egunera arte aldi zka mantentzeko lanak egin baitira. Izen ere, Urtean milaka pertsonak bisitatzen dute eta erabilpen publiko handia du. Mendearen hasieran zuhaixka itxura izan arren, urteak pasa ondoren arteak eta gurbitzak zuhaitz tankera hartu dute eta eskualdeko ale berezi bihurtu dira.



## Artadi kantabriarreko ekologia - *Ecología de los encinares cantábricos*



Artadi kantabriarrak drainatze oneko eta lur hebainetako kare-harrizko lekuetan daude eta Urdaibaiko sistema karstiko ia osoa okupatzen dute. Leku horietan bizi diren landareak ur eskasiari aurre egin behar diote (udan bereziki). Horretarako sustrai luzeak, hosto txikiak eta larru-itxurakoak dituzte hezetasuna ondo gordetzeko, estomak erregulatzat ura gal ez dezan. Artadiaren barnealdean aihen belarrak oso ugariak dira: endalaharra, apomahatsa, huntza, rubia peregrina, sastraka eta atxaparra, besteak beste.



Los encinares cantábricos se sitúan sobre crestas calizos con suelos raquílicos y buen drenaje, ocupando la práctica totalidad del sistema kárstico de Urdaibai. Las especies vegetales que habitan estos lugares deben hacer frente a la escasez de agua (especialmente en verano) por lo que desarrollan extensas raíces y hojas pequeñas y coriáceas capaces de retener la humedad, evitando, mediante la regulación de sus estomas la pérdida de agua. Destaca en los encinares la profusión de enredaderas, entre las que destacan la zarzaparrilla, la nueza negra, la hiedra, la rubia peregrina, la zarzamora, y la madreselva, entre otras.

## Artadi kantabriarren aspaldiko erabilpenak *Usos tradicionales de los encinares cantábricos*

Artadi kantabriarrak betidanik erabili ditu gizakiak, eta erabilpen horien guztien artean ikazkintza, abereentzako janaria, eta karearen ekoizpena daude. Ikazkintza antzinako jarduera da eta XX. mendearen erdialdean desagertu zen eskualdetik. Artearen egurrik, eta gurbitzarenak batez ere, kalitaterik hohereneko eta balio energetiko handieneko ikatz begetala ekoizten zuten. Horretarako txondorrak eraikitzen ziren mendietan "egurra egosteko" eta bero energia guztia ikatzean uzteko pisu gutxian. Karbiak harrizko labe txikiak ziren non, basotik ekarritako adarrak eta enborrak erre eta gero zatitutako kare harria berotzen zen hauts (kare) bihurtu arte. Kare horrek bi erabilpen nagusi zeuzkan: bata landaketarako ongarria, nekazaritza lurralen ph azidoa orekatzenko; eta bestea baserriak margotzeko pintura. Zuhain kimatzea gurbitzarekin egiten zen batik bat, adarrak bilduz hostoak baserrietako abereei emateko jaki gisa.



14



*Los encinares cantábricos han tenido diferentes usos tradicionales. De todos ellos destacan el carboneo, forraje para el ganado y la producción de cal. El carboneo ha sido una práctica antigua que desapareció de la comarca a mediados del siglo XX. La madera de encina y especialmente de madroño producía el carbón vegetal de mejor calidad y mayor valor energético. Para ello se construían carboneras donde se "cocía la madera", dejando en el carbón toda la energía calorífica de la madera con un peso muy liviano. Los caleros eran pequeños hornos de piedra donde, tras quemar en su interior ramas y troncos de madera extraída del bosque, se calentaba la piedra caliza hasta convertirla en polvo (cal viva). Esta cal tenía dos aplicaciones fundamentales: como abono para los cultivos, equilibrando el pH ácido del suelo de labranza, y también como pintura para las fachadas de los caseríos. El ramoneo forrajero se realizaba sobre el madroño en especial, recolectando ramas para posteriormente dar las hojas como alimento para el ganado en los caseríos.*

## Parke botanikoa



## El Parque Botánico



*El Parque botánico de Txatxarramendi se acondicionó como espacio para la interpretación e identificación de las especies presentes en él por parte del Dpto. de Medio Ambiente de la Diputación Foral de Bizkaia en el año 2000. Los trabajos de acondicionamiento dotaron al espacio de placas identificativas de especies, así como paneles de interpretación del paisaje exterior y los valores naturales y faunísticos que acoge la isla.*

15

## GARTXU HOSTOZABALA

Labiernago

*Phillyrea latifolia*



18

15 metroko garaiera har dezakeen hosto iraunkorreko zuhaixka. Artadien bazte-rettan hazi ohi da. Euskal Herriko barne eta kostaldeko artadietan agertzen den landare bero zalea da. Egurra astuna eta gogorra da eta ikatza egiteko zein erregai modura oso estimatua izan da. Hostoak eta fruituak ultzera eta ahoko handituak sendatzeko erabili dira medikuntza he-rrikoian. Apirila eta ekaina bitartean lo-ratzen da.

Arbusto perenne de hasta 15 mt. de altura. Crece en la orla del encinar. Es una planta amante del calor que aparece en los carrascales interiores y en los encinares cantábricos del País Vasco. Su madera es pesada y dura y ha sido muy apreciada como combustible y para la elaboración de carbón vegetal. Las hojas y frutos tie-nen aplicación en medicina popular para la curación de tóceras e inflamaciones de la boca. Florece de abril a junio.

10 metroko altuera har dezakeen zuhaixka da, nahiz eta ez izan arrunta. 5 metrotik goragoko alerik aurkitzea. Toki epeletan agertu ohi da, kostaldean ugaria izanik. Udazkenean loratzen da, aurreko urteko fruituak heltzen diren garaian. Suteek mesede galanta egiten diote, sustraitik berriz ere kimatzen delarik. Egurra oso astuna eta gogorra da, erregai modura oso preziatua. Fruituak jangarriak dira eta hostoak eta azalak larruak ontzeko eta beherazkoak sendatzeko erabili izan dira.

Arbusto de hasta 10 mt. de altura, aunque habitualmente no supera los 5 mt. Apa-rece en zonas cálidas, siendo frecuente en la costa. Florece durante el otoño, época en que maduran los frutos del año anterior. Se ve favorecido por los incen-dios brotando de raíz. Su madera es muy pesada y dura y apreciada como combus-tible. Sus frutos son comestibles y las hojas y cortezas han sido utilizadas para curtir pieles y para combatir diarreas.



## GURBITZA

Madroño

*Arbutus unedo*



19

## EREINOTZA - ERRAMUA

Laurel

*Laurus nobilis*



10 metroko altueraraino hel daitekeen hosto iraunkorreko zuhaitza. Berozalea da eta kosaldean agertu ohi da, batez ere, sakana heze eta hantzadietan baina baita baso nahasi eta artadietan ere. Udaberrian loratzen da eta fruituak udazke-nean heltzen dira. Haziak hegaztiak barreratzen dituzte. Hostoak sukaldaritzan erabiltzen dira eta ahalmen karminatibo eta urdailarentzat onak dituzte.

Arbol perenne de hasta 10 mt. de altura. Es amante del calor y se distribuye por la zona litoral preferentemente en barrancos húmedos y en alisedas, aunque también en bosques mixtos y encinares. Florece en primavera, madurando los frutos en otoño. Sus semillas son propagadas por las aves. Sus hojas se utilizan como condimento y tienen también propiedades carminativas y estomacales.

25 metroko altuera izan dezakeen eta artadiak eratu ohi dituen hosto iraunkorreko zuhaitza. Lurzoru eskas eta ondo drainatuetan agertzen da, Euskal Herriean, kare-harrieta, batez ere. Udal lehortetara ondo moldatuta dago, eta mediterránea aldean nagusi da. Udaberrian loratzen da, eta ezkurrak udazke-nean heltzen dira. Egur-ikatz ezin hobeara, eta fruituak basurdearen jaki dira.

Arbol perenne de hasta 25 mt. de altura que el grueso del encinar. Crecer sobre suelos pobres y con buen drenaje. En el País Vasco Atlántico preferentemente en calizas. Está bien adaptado a las sequías estivales y domina toda la región mediterránea. Florece en primavera, madurando las bellotas en otoño. Su madera produce el mejor carbón vegetal y sus frutos son parte de la dieta de los jabalíes.



## ARTEA

Encina

*Quercus ilex*

## ZUHANDORRA

Cornejo

*Cornus sanguinea L.*



4 metroko altuera har dezakeen hosto erorkorreko zuhaixka. Basoen argiunetan eta, batez ere, bazterretan eta berroetan agertu ohi da. Euskal Herriko zuhaixkarik ugarienetarikoa da. Mendirik garaienetan soilik falta da. Maiatz eta ekaina bitartean loratzen da (batzueta berriro udazkenean) eta neguan ematen du fruitua. Egurra oso gogorra da eta lanabesen kirtzenak egiteko erabili izan da. Fruituak astringenteak dira.

Arbusto caduco de hasta 4 mt. de altura. Crece en claros de bosque y especialmente en orillas y setos. Es uno de los arbustos más abundantes del País Vasco. Tan solo falta en las montañas más elevadas. Florece entre mayo y junio (a veces otra vez en otoño) y da fruto en invierno. Su madera es muy dura y se ha utilizado para mangos de herramientas. Sus frutos son astringentes.

40 metroko altuera har dezakeen zuhaitza. Arrunta da Euskal Herrian, banaka agertzen da ibai bazterretan eta berroetan. Ibai eta laku inguruko lurzoru fresko eta sakonak nahiago ditu. Otsaila eta martxoan bitartean loratzen da, eta frutuak martxoan eta apirila aldera agertzen dira. Espezieak, arriskuan jarri duen grafiosis gaitza pairatzen du. Egurra egokiro jasaten du hezetasuna, hori dela eta, estimu handikoa da ontzigintzan. Hostoak abereak elikatzeko erabili izan dira.

Arbol que llega a alcanzar 40 mt. Es común en el País Vasco apareciendo de forma dispersa en riberas y setos. Prefiere suelos frescos y profundos cercanos a ríos y lagos. Florece entre febrero y marzo fructificando entre marzo y abril. Es atacado por una enfermedad denominada grafiosis que ha puesto en peligro a la especie. Su madera es apreciada en construcción naval puesto que soporta muy bien la humedad, sus hojas han sido utilizadas como forraje para el ganado.

## ZUMAR HOSTO TXIKIA

Olmo

*Ulmus minor*



## SAHATS ARRUNTA

Sauce común

*Salix atrocinerea*



24

10 metrorainoko altuera har dezakeen zuhaixka hostogalkorra. Degradatutako lurzoruetan nonahi agertzen da, eta lurzorua bera berreskuratu eta higadura moteltzen du. Basoa berreskuratzeko ezinbestekotzat jotzen da eta lurzoruko hezetasun maila adierazten du. Euskal Herriko sahatsik ugariena da eta, askotan, malda hezeetan higadura moteltzeko erabili da.

Arbusto caduco de hasta 10 mt. de altura. Es un arbusto pionero y cosmopolita que ocupa suelos degradados, recuperando el suelo y amortiguando la erosión. Es imprescindible en la recuperación del bosque e indica un cierto grado de humedad en el suelo. Es el sauce más abundante del País Vasco y se ha empleado en algunos casos para frenar la erosión en taludes húmedos.

Berroak eratuz, lurzoru hezeetan hazten den 5 metrorainoko zuhaixka. Harizti, baso misto eta artadiko landare aldaketa tartean agertzen da. Magenta koloreko kapsula baten barruan laranja koloreko frutu ikusgarriak ditu. Baso argiunetan agertzen den hazi pozoidun zuhaixka da. Asiako mendebaldean eta Afrikako iparraldean eta Europako leku gehienetan ageri ohi da.

Arbusto de hasta 5 mt. de altura que crece formando setos sobre suelos frescos. Aparece como especie de transición entre el encinar y el bosque mixto o el robledal. Tiene frutos muy vistosos de color naranja envueltos en una cápsula de color magenta. Es un arbusto frecuente en los claros del bosque. Sus semillas son tóxicas. Se extiende por la mayor parte de Europa, Asia occidental y norte de África.

## BASAERRAMUA

Bonetero

*Euonymus europaeus L.*



25

## TXORBELTZA. KARRASKILOA

Aladierno

*Rhamnus alaternus*



26

5 metroko altuera har dezakeen hosto iraunkorreko zuhaixka. Hazteko baso bazterrak nahiago ditu eta Euskal Herriko edozein tokitan agertzen da. Neguanen bukaerarantz loratzen da eta bere fruituak udazkenean heltzen dira. Egurra gogorra eta astuna da, egurgintzan oso estimatua. Azalak libragarri bezala erabili izan dira, hostoak eta adarrak, aldiz, anginak eta ahoko handituak sendatzeko.

Arbusto perenne de hasta 5 metros de altura. Crece preferentemente en las orillas de los bosques, distribuyéndose por todo el País Vasco. Florece a finales de invierno y sus frutos maduran en otoño. Su madera es dura y pesada, apreciada en ebanistería. Su corteza tiene propiedades purgantes y sus hojas y ramas se utilizaban para tratar las anginas y las inflamaciones de la boca.

20 metroko altuera har dezakeen hosto galkorreko zuhaitza. Artadiko lurzoru hezeenetan hedatzen diren berroetan ageri da, beste espeziekin nahastuta. Fruitu hegalduna basoko mikrougatzun askoren elikagai da. Zura trinkoa eta gogorra da, zurgintzan, baita erregairako ere, oso preziatura. Hostoak eta ernamuin atera berriak etxe abereak elikatzeko erabili izan dira.

Árbol caduco de hasta 20 mt. de altura. Aparece como especie acompañante en los setos que se asientan sobre los suelos más frescos del encinar. Sus frutos alados sirven de alimento a diversos micromamíferos del bosque. Su madera es compacta y dura siendo muy apreciada en carpintería y también como combustible. Sus hojas y brotes tiernos han sido aprovechadas como forraje para el ganado.

## ASTIGAR ARRUNTA

Arce Campestre

*Acer campestre*



27

## GEREZIONDOA

Cerezo silvestre  
*Prunus avium L.*



30 metroko altuera har dezakeen hosto galkorreko zuhaitza. Azal grisaxkan oso berezkoak dituen arraildura horizontak agertzen dira. Artadietako lurzorua sakon eta hezeetan bizi da. Fruituak, gereziak, oso gustuko dituzte basoko ugaztumek eta hegaztiekin. Udzakenean hostoek kolore gorri bizi-bizia hartzen dute. Gereziondoaren zura oso preziatua da zurgintzan, hezetasun aldaketak txarto jasan arren.

Arbol caducifolio de hasta 30 mt. de altura. Posee una corteza grisácea con ralladuras horizontales muy característica. Vive en las zonas interiores de los encinares donde se dan suelos profundos y húmedos. Sus frutos son muy valorados por las aves y los mamíferos del bosque. Su floración es muy espectacular. En otoño las hojas adquieren un color rojizo muy vivo. Su madera es apreciada en ebanistería aunque resiste mal los cambios de humedad.

30 metroko altuera har dezakeen hosto erorkorreko eta itxura sendoko zuhaitza. Artadiko lurzorua sakonenetan eta freskoenetan hazi ohi da, lehorrenak baztertuz. Udarberrian loratu eta fruituak udazken aldera heltzen dira. Egurra gogorra eta malgua da, eta egurgintzan oso preziosa. Fruituak biziki elikagarriak dira eta gizakiok jaten ditugu.

Arbol caducifolio de aspecto corpulento de hasta 30 mt. de altura. Crecer en los suelos más profundos y frescos del encinar, evitando los lugares más secos. Florece durante la primavera y sus frutos maduran en otoño. Su madera, resistente y elástica, es muy apreciada en ebanistería. Sus frutos son muy nutritivos, siendo consumidos también por el ser humano.



## GAZTAINONDOA

Castaño  
*Castanea sativa*



## HUNTZA

### Hiedra

*Hedera helix*



30 metroko luzera har dezakeen landare igokari eta herrestaria. Ugarria da baso, haitz eta harresietan. Ez da lurzoru idor eta txiroetan agertzen. Uda bukaeran loratu eta fruituak udaberrian heltzen dira. Fruituok oso estimatuak dituzte hegaztiak, hazi sakabanatzaile bikainak izaki. Medikuntza herrikoian zauriak sendatzeko, neuralgiak moteltzeko eta maskurak ezabatzeko erabili izan da.

Planta trepadora y rastrera que puede alcanzar 30 mt. Abundante en bosques, roquedos y muros. No aparece sobre suelos áridos o muy pobres. Florece a finales de verano y sus frutos maduran en primavera. Sus frutos son muy apreciados por las aves que se encargan de dispersar sus semillas. Tiene utilidad en medicina popular para cicatrizar las llagas, calmar las neuralgias y combatir los callos.

Tamaina ertaineko konifera. Ez du 25 metroko altuera gainditzen. Lehortera hoberen moldatutako pinua denez. Euskal Herriko isuri mediterráneo alda pa lehor eta txiroenetan agertzen da (gure aldean apaingarritzat landatzen da). Lorreak martxoa eta maiatza bitartean agertu ohi dira, eta pinaburuek urte bi behar dituzte eratzeko. Egurra erretxinatsua da eta, batez ere, trenbideetako trabesak egiteko eta erregai gisara erabiltzen da.

Conífera de talla mediana. No suele superar los 25 mt. de altura. Es el pino mejor adaptado a la sequía, ocupando laderas secas y pobres en la vertiente más mediterránea del País Vasco (aquí se planta como ornamental). Las inflorescencias aparecen entre marzo y mayo, tardando las piñas dos años en formarse. Su madera es resinosa y se aprovecha fundamentalmente para construir traviesas de ferrocarril y como combustible.



## ALEPPO PINUA

### Pino carrasco

*Pinus halepensis Miller*

## PYRACANTHA

*Pyracantha  
angustifolia*



2 metro inguruko altuera hartzen duen zuhaixka. Europako hego-ekialdean eta Asia mendebaldean du jatorria. Apaigarritzat landatua izan da eta, sarritan, basati bihurtu eta berroetan, sastrakadietan eta errepeide bazterretan agertu da. Apirila eta ekaina bitartean loratzen da eta irailetik aurrera heltzen diren frutuak, landarean irauten dute udazkenean eta ia negu osoan. Era horretara, zenbait hegaztiaren jatekoia ziurtatzten dute. LANDARE EXOTIKOA

Arbusto de unos 2 mt. de altura. Proviene del sudeste de Europa y Asia Occidental, cultivada en ornamentación a menudo se asilvestra apareciendo en setos y matorrales y cunetas. Florece de abril a junio y los frutos maduran a partir de septiembre permaneciendo en la planta durante todo el otoño y casi todo el invierno lo cual proporciona alimento a ciertas especies de aves. PLANTA EXOTICA

10 metroko altueraraino hel daitetako hosto erorkorreko zuhaixka. Ugaria da Euskal Herri osoan. Hezi biziak era ohi ditu eta artadiaren inguruan agertzen da. Apirila eta maiatzaz bitartean loratzen da, frutuak iraila edo urri aldera heltzen direlarik. Loreak ahalmen sendagarriak dituzte sedante eta antiespasmódikoak izanik. Frutuak hegazti askoren elikagai dira.

Arbusto caduco de hasta 10 metros de altura. Abundante en todo el País Vasco. Forma setos y acompaña a la orla del encinar. Florece entre abril y mayo, madurando sus frutos en septiembre u octubre. Sus flores tienen propiedades terapéuticas como sedantes y antiespasmódicas. Sus frutos sirven de alimento a muchas especies de aves.



## ELORRI ZURIA

Espino albar  
*Crataegus monogyna*



## ZUHAIN MADARIKATUA

Aligustre

*Ligustrum vulgare L.*



34

5 metroko altuera eta hosto iraunkorreko zuhaixka. Lurzoru hezedun baso baztretan eta argiunetan bizi da. Loreak usaintsuak dira eta maiatzean agertu ohi dira, fruituak, aldiz, abuztu eta iraila bitartean heltzen dira. Egurra gogorra eta malgua da. Fruituak pozotsuak dira eta hostoek eta loreek ahalmen astrigenteak dituzte.

Arbusto perenne de hasta 5 mt. de altura. Vive en orlas y claros de bosque, en suelos que conserven humedad. Sus aromáticas flores aparecen en mayo y los frutos entre agosto y septiembre. Su madera es dura y elástica. Los frutos son tóxicos y las metas de altura. Abundante en todo el País Vasco. Forma setos y acompaña a la orla del encinar. Florece entre abril y mayo, madurando sus frutos en septiembre u octubre. Sus flores tienen propiedades terapéuticas como sedantes y antiespasmódicas. Sus frutos sirven de alimento a muchas especies de aves.

3 eta 8 metro bitarteko altuera duen hosto iraunkorreko zuhaixka. Apirila eta maiatzaz tartean mordoka agertzen diren loreak oso ugariak da. Hasieran berdeak diren fruituak, gero gorri eta iraila heltzean beltz bihurtzen dira. Kaukason, Balkanetako Penínsulan, Turkian eta Pertsian du jatorria. Europen apaingarri modura sartu zen. LANDARE EXOTIKOA

Arbusto perenne de entre 3 y 8 mt. de altura. Sus flores aparecen entre abril y mayo y son muy abundantes, organizándose en racimos. Los frutos son principalmente verdes, después rojos y en septiembre cuando maduran negros. Es originario del Cáucaso, Península balcánica, Turquía y Persia. Introducida en Europa como planta ornamental. PLANTA EXOTICA

## GEREZI-ERRAMUA

Laurel cerezo

*Prunus laurocerasus L.*



35

## LEGELTXORRA

Lentisco  
*Pistacia x saportae*



2-3 metroko hosto iraunkorreko zuhaixka. Giro mediterraneoka da, eta abariztietan eta artadietan hazi ohi da. Hotzarekiko oso sentikorra da, hori dela eta, kostaldeko lekurik beroenetan agertzen da. Martxo eta ekaina bitartean loratzen da eta fruituak udazkenean heltzen dira. Egurra gogorra eta astuna, erregai bikaina.

Arbusto perenne de 2-3 mt. de altura. Propio de ambientes mediterráneos crece en coscojares, carrascales y encinares. Es una planta muy sensible al frío por lo que se sitúa en los lugares más cálidos de la Costa Vizcaina. Florece entre marzo y junio, madurando sus frutos en otoño. Su madera, dura y pesada es un excelente combustible.

Berde ilun koloreko enbor zurruna eta metro bateko altuera har dezakeen landarea. Zenbait harizti, artadi, eta bestelako basoetan bizi da. Martxo eta maiatza bitartean loratzen da eta kolore gorriko fruituak udazken eta neguan heltzten dira. Antzina erratzak egiteko erabiltzen zen eta medikuntza herrikoian aperitivo eta diuretiko gisara.

Planta de hasta 1 mt. de altura de tallos rígidos de color verde oscuro. Es una planta que vive en el interior de diferentes bosques, robledales, encinares, etc. Florece de marzo a mayo y los frutos de color rojo maduran en otoño e invierno. Antiguamente se utilizaba para la confección de escobas y en medicina popular como aperitivo y diurético.



## ERRATZA

Rusco  
*Ruscus aculeatus L.*



## ENDALARRA

### Zarzaparrilla

*Smilax aspera L.*



15 metroko altuerara hel daitekeen hosto iraunkorreko igokaria. Gainera, errizomaduna eta arantzatsua ere bada. Arrunta da Euskal Herriko kostaldean, bereziki artadietan eta barne aldeko ibar babes-tuetan. Abuztutik urrira loratzen da eta fruituak neguan heltzen dira. Ugariak dira eta endalar likorea egiteko erabili izan dira.

Planta rizomatosa, perenne, trepadora y espinosa capaz de alcanzar 15 mt. de longitud. Común en la costa Vasca, especialmente en encinares y valles abrigados del interior. Florece de agosto a octubre y produce bayas en invierno. Estas son abundantes y han sido utilizadas para elaborar licor de zarzaparrilla.

40 metroko altuera har dezakeen hosto erorkorreko zuhaitza. Lurzoru heze eta aberatsetan hazi ohi da, eta antzina zuhaitzik ugariena zen bailaren behealdean. Egun urria da eta lurzoru baztertuetan agertzen da. Apirila eta maiatzaz bitartean loratzen da, ezkurra, berriz, irail eta urri aldera heltzen dira. Egurra oso egokia da erabilera askotarako, eta basoko faunak biziki estimatzen ditu fruituak.

Arbol caducifolio de hasta 40 mt. de altura. Crece sobre suelos húmedos y ricos siendo antigüamente el árbol predominante en fondos de valle. Hoy en día escaso y relegado a tierras marginales. Florece entre abril y mayo, madurando las bellotas entre septiembre y octubre. Su madera es excelente para gran cantidad de usos y sus frutos sirven de alimento para la fauna.



## HARITZ KANDUDUNA

### Roble pedunculado

*Quercus robur*



## ARKAKARATSA

Rosal silvestre  
*Rosa sempervirens*



Enbor ahul eta hosto iraunkorreko zuhaixka igokaria. Berroetan eta artadi bazterretan ohikoa. Euskal Herriko isuri atlantiko guztian agertu ohi da. Maiatz eta ekaina bitartean loratzen da, eta udazken edo negu aldera ematen ditu frutiak. Horiek oso gustuko dituzte artadian bizi diren ugaztunek. Aspaldi sortu ziren apaingarri modura zein lorenzaintzan erabiltzeko barietate artifizial berriak.

Arbusto trepador perenne de 5 mt. de altura y con tallos débiles. Muy común en los setos y lindes de encinares. Se distribuye por toda la vertiente atlántica del País Vasco. Florece entre mayo y junio fructificando en otoño-invierno. Sus frutos son muy apreciados por los mamíferos que habitan los encinares. Desde antiguo han sido creadas diferentes variedades artificiales para ornamentación y jardinería.

4 metroko altuera har dezakeen arantza-dun eta hosto galkorreko zuhaixka. Harizti, pagadi eta artadi bazterretan beerroak eratzten ditu. Arantzak dituela eta, animaliak babesteko ezin hobe da. Afrikako iparraldean, Asiako mendebaldean eta Europako leku gehienetan ageri ohi da. Frutiak, basaranak, anisean beratzerakoan patxarana lortzen da.

Arbusto espinoso y caduco de hasta 4 mt. de altura. Aparece formando setos en las orillas de los encinares, hayedos y robledales. Su estructura espinosa le hace ser un excelente protector de la fauna. Se extiende por la mayor parte de Europa, Asia occidental y norte de África. De la maceración en anís de sus frutos, las endrinas, se obtiene el pacharán.



## ELORRI BELTZA

Endrino  
*Prunus spinosa L*



**BASAGURBEA**

Mostajo

*Sorbus torminalis*

20 metrotaraino hazten den zuhaitza da. Bere hedapen eremua mediterraneo aro oso da eta Europako erdialdea, modu sakabanatuan, baso monoespezikoak eratu barik. Euskal herrian baso naturaletan eta berroetan agertzen da, 1.200 metro gainditu barik. Bizkaiko kostaldean Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren eremuan dago bakarrik. Baso nahastietan eta artado kantauriarretan laguntziale giza agertzen da. Egurra gogorra eta trinkoa du eta oso apreziatua da kalitate bikaina duelako. Bere fruktua marroiak dira eta arrazimoetan agertzen dira. Basoko hegaztiek asko estimatzen dute frutiak.

Arbol de hoja caduca de hasta 20 metros. Su área de distribución es toda la cuenca mediterránea y Europa Central de manera dispersa, sin formar bosques monoespecíficos. En el País Vasco aparece disperso en bosques y setos sin superar los 1.200 mts. de altura. En la costa de Bizkaia solo está presente en la Reserva de la Biosfera de Urdaibai. Es una especie acompañante de los bosques mixtos y encinares de Urdaibai. Su madera es dura y sólida de excelente calidad y muy apreciada. Sus frutos se presentan en racimos con bayas de color marrón muy estimadas por la avifauna del bosque.

**APOMAHATSA**

Nuez negra

*Tamus communis*

Mediterranean arroaren eremuko landare igokaria, Europako erdialderaino hedatzen den landarea da. Bere sustraiak errizo-madunak dira. Artadi kantauriarraren bazerretako landare arrunta izan arren, beste baso naturaletan, (chariztiak, eta erkametzaldiak) aurki dezakegu. Euskal herri osoan hedaturik dago, nahiz eta E.A.E.-ko hegoaldean eta mendirik altuinetan oso urria izan. Apirilatik ekainera loratzen da. Frutu ugari ematen du eta hauek heltzen direnean gorri kolore bizia hartzen dute.

Enredadera típica del entorno de la cuenca mediterránea llegando hasta el centro de Europa. Sus raíces están formadas por tubérculos. Es una especie típica de la orla del encinar cantábrico y también de otros bosques naturales como quejigales y robledales. Esta presente en todo el País Vasco aunque se hace más rara en el sur de la C.A.P.V. donde los suelos son más secos y en las montañas más elevadas. Florece de abril a junio. Produce abundantes racimos de bayas que cuando maduran adquieren un vivo color rojo.

**OTXAR BASATIA**

Rubia silvestre

*Rubia peregrina*

Urteko landare igokaria da sarritan herrestari izan arren. Zurtoina eta hosto koriazeo azpaldean arantxatxo batzuk ditu beste landare igokariekin bat egiteko sotilki eta horrela basoaren goialdera heltzeko. Bere fruituek globo itxura dute eta helduak direnean beltz kolorea hartzenten dute. Bere izena ugaztunen azalari eta erromesei lotzeko duen gaitasunetik dator, bere haziak era berean sakabanatuz. Diuretiko giza erabiltzen da.

Planta trepadora anual que, a menudo, se comporta como rastrera. Su tallo y el envés de sus hojas coriaceas disponen de diminutas espinas que sutilmente la ayudan a adherirse a otras plantas trepadoras y ascender con ellas en busca de la cúpula del bosque. Sus frutos son globosos de color negro cuando son maduros. Su nombre hace referencia a la capacidad de adherirse a la piel de los mamíferos e incluso a la ropa de los peregrinos dispersando de esta manera sus semillas. Se utiliza como diurético en infusiones.



# FAUNA

Urdaibaiko artadi kantabriarretan fauna ugaria bizi da. Basoaren egitura itxia eta zerratuak animalia askorentzako paregabeko babesleku bihurtzen du. Txatxarramendi uhartean hegazi espezie gutxi ikus daitezkeen arren (txonta, amilotx urdina, kaskabeltsa, zozoa, txantxangorria, eta erregetxo bekainduna), Urdaibaiko gainontzeko artadi kantabriarretan interes handiko hegaziak ikus daitezke: arrano sugezalea, txinbo burubeltza eta etze txinboa, bestek beste. Artadietan ugaztun espezie ugari bizi dira, batzuk desagertzeko zorian, basakatua esaterako, eta beste batzuk arruntagoak: basurdea, katajineta, lepazuria eta azkonarra, bestek beste. Txatxarramendi irlako inguru oso leku interesgarria da paduretako ur-hegaziak behatzeko: martín arrantzalea, lertxun txikia, lertxun hauskara eta ubarroi handia bestek beste.

Los encinares cantábricos de Urdaibai acogen una fauna diversa. Su estructura cerrada y espesa hace de esta masa forestal un refugio protegido para muchas especies animales. Si bien en la Isla de Txatxarramendi tan solo podemos encontrar algunas especies de aves como el pinzón vulgar, el herrerillo común, el carbonero común, el mirlo, el petirrojo y el reyezuelo listado, en los demás encinares de la Reserva de la Biosfera de Urdaibai, además de estas aves crían otras de gran interés como el águila culebrera, la curruca rabilarga y la curruca cabecinegra, entre muchas otras. En los encinares cantábricos podemos encontrar una amplia representación de mamíferos, algunos en peligro de extinción como el gato montes y otros más abundantes como el jabalí, la gineta, la garduña o el tejón. El entorno de la isla de Txatxarramendi es un espacio interesante para observar aves acuáticas relacionadas con las marismas: martín pescador, garceta común, cormorán grande y garza real entre otras.k beste.



## AMILOTX URDINA

### Herrerillo común

### *Parus caeruleus*

Amilotx urdina baso hostoerorkorrarekin, baso nahasiekkin eta artadiekin harreman estua duen baso-hegaztia da. Hegazi insekujalea da eta zuhaitzen adarretan negua pasatzen diren insektuen larbak jaten ditu. Zuhaitz zaharretako zulo txikietan egiten du habia. Neguan askoz errazago ikusten da Txatxarramendi irlan mendiko eremu hotzetatik paduretarra hurbiltzen delako elikagai bila.

El herrerillo común es una ave forestal relacionada con bosques caducifolios, mixtos y encinares. Es un ave insectívora que se alimenta de larvas de insectos que inviernan en los tallos de los árboles. Cría en pequeñas oquedades de troncos viejos. Durante el invierno se hace más visible en la isla de Txatxarramendi bajando desde las zonas altas más frías al entorno de las marismas en busca de alimento.

## KASKABALTZA ARRUNTA

### Carbonero común

### *Parus major*

Kaskabeltz arrunta aurrekoan baino espezie ugariagoa da. Urte osoan zehar behatu daiteke irlaren eremuan. Zuhaitz zaharretako zulo txikietan egiten du habia eta insektuak eta larbak harrapatzen ditu enborretan eta adarretan gelditu barik. Urtarrila eta otsaileko egun eguzkitzuetan bere eztei-kantu ederra entzun daiteke irla osoan.

El carbonero es una especie más abundante que la anterior. Acostumbra a ser observada en la isla durante todo el año. En la isla cría en oquedades de viejas encinas y se alimenta de insectos y larvas que capture recorriendo los troncos de un lado para otro. Durante los días soleados de enero y febrero es habitual escuchar su canto nupcial en la isla.



## TXONTA ARRUNTA

Pinzón vulgar

*Fringilla coelebs*

Txonta arrunta hegazi ugaria da. Arreek emeak baino kolore biziagoak dituzte. Hegazi graniboroa da eta haziak jan arren garai batzuetan insektuak jaten ditu ere bai. Hegazi ugaria da eta habia egiten du Txatxarramendi irlan. Paduretarra hurbiltzen da askotan landare halofita batzuen haziak jateko.

El pinzón vulgar es una especie abundante. Los machos muestran colores más vivos que las hembras. Es un ave granívora que se alimenta de semillas, aunque en determinadas épocas se alimenta de insectos. Es una ave abundante que también cría en la isla. Acostumbra a acercarse al entorno de las marismas en busca de las semillas de algunas plantas halófitas.



## LOGINCORNIO

*Lamia textor*

Antena handiko insektu sendoa da. Insektu xilofagoa da, egurra jaten du alegia. Baso eremu askotan dago: Artadiak eta hariztiak batez ere, pinu insignis landaketetan aurkitu arren ere. Usteltze prozesuan dauden motzondo zaharrak du bizilekua. Horietan bere arrautzak jartzen ditu, bere larbak egur ustelduan hazten dira eta. Naturan paper garrantzitsua dute insektu hauek eroritako eta hildako zuhaitzen enbor zaharrak lurzoru emankorra bihurtuz. Arrunta izan arren, ez da inon ugaria.

Se trata de un insecto robusto y de grandes antenas. Pertenece al grupo de los xilófagos, es decir, comedores de madera. Está presente en ambientes forestales de diversa índole: encinares, robledales, e incluso en cultivos forestales de pino insignis. Busca los viejos tocónes en descomposición para alimentarse y poner los huevos, pues sus larvas se desarrollaran entre la madera podrida. Estos insectos cumplen un papel muy importante en la naturaleza, transformando por medio de la descomposición los viejos troncos de árboles caídos y muertos en suelo fértil. Aun tratándose de una especie común, no es abundante en ninguna parte.

